


“Zenbaki dezimaldunak: irakurketa, baliokidetzak eta konparazioak”, kontzeptuak


ZENBAKI DEZIMALDUNEN IRAKURKETA

Zenbaki dezimaldunak parte osoa, koma eta parte dezimala ditu.



Parte dezimala komaren ondoren doa eta unitatearen frakzioa adierazten du.

Zenbaki dezimaldunak irakurtzen ditugunean, parte osoari *unitate* deitzen diogu, jarraian *koma* aipatzen dugu eta, azkenik, komaren ondoren datorren zenbakia irakurtzen dugu. Adibidez, aurreko zenbakia “hiru koma zortzi” irakurriko genuke. Beste aukera bat da “hiru oso eta zortzi hamarren” esatea.



Beste adibide batzuk:

- 25,489 zenbakia 25 oso eta 489 milaren irakurtzen da.
- 0,8 zenbakia 8 hamarren irakurtzen da.

BALIOKIDETZAK

- Unitate bat 10 hamarren dira. Hamarren bat unitatearen zati hamarrena da.
- Unitate bat 100 ehunen da eta hamarren 1 hamar ehunen.
- Unitate bat 1.000 milaren da, hamarren bat 100 milaren eta ehunen bat 10 milaren.

ZENBAKI DEZIMALDUNAK KONPARATZEA

Gogora itzazu honako urrats hauek:

1. Zenbaki handiena parte osoa handiena duena da. Zenbaki bat baino gehiagoren parte osoa berdina bada, bigarren urratsera jo behar dugu.
2. Zenbaki handiena hamarrenetan zifra handiena duena da.
3. Zati osoa eta hamarrena berdinak badira, ehunenak begiratu behar dira. Ehunenetan zifra handiena duena izango da zenbakirik handiena.
4. Zati osoa, hamarrena eta ehunena berdinak badira, milarenak begiratu behar dira. Milaren zifra handiena duena izango da zenbakirik handiena.